

# ANAITASUNA

B I Z K A I A

161 gn. zenb. - 1968, maiatzak 30 - 4 pta.

## UNIBERSIDADEAN ZER JAZOTEN DA?

Ona emen, Pedro Lain Entralgok, Madrilleko «Ya» egunkarian, aprillaren lenengoan esan dauana:

«Zer da, Espainiako Unibersidadean gaur gertatzen dana? Espainiako Unibersidadea ez dala ona. Ez Estatuak eta ez gizamailla gorengoak ez dauke benetako borondaterik, Unibersidadea gure artean al danik onena izan daiten. Euren ustez, Unibersidadean jazoten dana, ordenabide publikuaren prolema uts bat da, sakontasun bako prolema bat. Baiña egia, beste bat da. Gaurko ikasleak, gizarte ta historiaren beste kontzientzia barri bat dauke; eta euren urduritasuna, kontzientzia orren agerpen bat da.»

### Ikasleak eskatzen dabena

Estudianteak organizatu egin dira, eta Unibersidadearen erreforma demokratiku bat gura dabe. Zeintzuk dira, erreforma orren puntu nagusiak? Oneexek dira:

- 1.º Edegi Unibersidadea soziedadeko gizamailla guztientzat.
- 2.º Irakatsi Unibersidadean gaur eguneko prolema tekniku ta sozial guztiak. Ez daitela izan Unibersidadea banaka batzuen onerako bakarrik, gizarte guztiaren zerbitzurako baiño, batez bere beargiñen promoziorako, eurok baitira naziooko talderik aundiena.
- 3.º Dagoala Unibersidadean benetako askatasuna, irakasteko, inestigaziñoak egiteko, norberaren eritxiak agertzeko ta alkartasunak eratu teko.
- 4.º Euki dalala Unibersidadeak bere autonomia. Bertako organizaziñoa demokratikua izan daitela, ikasle ta irakasleak, danok batera, Unibersidade barruko prolemak ebatzi dalezan.

### Kontzilioak diñoana

Kontzilioak esandakoa irakurri ta ausartu dauan katolikua, ez da goiko programa orregaz arrituko. «Gaudium et Spes» deritxon dokumentua zabaldu ta



Madrilleko Unibersidadea

«Gaurko ikasleak, gizarte ta historiaren beste kontzientzia barri bat dauke»

beste barik, auxe irakurri leike edonok 59 gn. atalean:

«Kulturearen lenengo iturburua, gizonaren izakerea berbera da. Gizona, bere izatez, adimenduna ta soziala da. Orregaitik kultureak askatasun egoki bat bear dau, aurrera joateko; eta benetako autonomia, bere legeen erara jarduteko.

«Kultureak eskubidea dauka, errespetatua izateko. Ezin leike iñok kulturea indarrez ara edo ona bortxatu, zelanbait ikutueziña da-ta.

«Orregaitik, lege moralak gorde ezker eta erritar geienen onerako jardun ezketiño, edozein gizonek dauko eskubidea, eragozpen barik egia billatzeko, bere eritxiak agertu ta zabaltzeko, edozein arazotan jarduteko, eta, azkenik, naziñoan jazoten danari buruz egiazko informaziñoa eukiteko.

«Naziñoako agintarien zeregiña ez da, kultureak zelakoa izan bear dauan erabagitea, errezpideak emotea baiño, kulturazko bizitza erritarren artean —eta baita Estatu barruko minorien artean bere—

zabaldu daiten. Ori dala-ta, alegiña egin bear da gauza guztien gaiñetik, kulturea bere bidetik okertu ez daiten, eta politikearen naiz ekonomiaren menpeko biurtu ez dadin.»

- **AITA ARRUPEREN IDAZKIA USAKO JESUITERI**  
4 gn. orriald.
- **ALEMANIAN, DEMOKRAZIA: R. I. P.**  
6 gn. orriald.
- **LARRAURIKO MONJEN AUZIA**  
7 gn. orriald.
- **LOTSORRA NAIZ NESKAKAZ BERBA EGITEKO**  
10 gn. orriald.

## MARKIÑA



Gure gaztetxuen-  
tzako jarraibide  
bikaina

ANJEL M. EGIA

Dakizuenek, oraintsu izan da «COCA-COLA»k eraturako idaz-sariketea.

Bizkaian, ikastetxe bakoitzean aukeratu-takoak, iru taldetan zatituta, nagusi, erdi-ko ta txiki, idazlan bat egin bear izan eben, talde bakoitxetik nok obeto idazten eban agertzeko.

Jorraillaren (aprilaren) 28an, jaialdi bat egiñaz, Bilboko Santiago ikastetxeko saloian banandu eutsezan sariak, talde bakoitxetik nagusi geratu ziran lenengo amarrai.

Ona emen, erdikoan artean Bizkaiko txapeldun izatea lortu dauan mutiko jatorra be jatorra:

Larruskaiñen bizi dan eta Markiñako «Escuela Laboral»ean ikasten diarduan ANJEL MARI EGIA.

Zorionak berari ta beste txapeldunai!

## FORUA

Aurrez aurre daukat Foruko frantziskotarron bizilekua: ezkerretara, eleiza maitagarrria ta komentutxu umilla, larrosa ta berdez apaindua. Goian, teillabarritzearen zaratea; ta eskumatara... baltz, bakar, gure Seminario izandakoaren ormak. Leioetan gora, udabarriko zeruaren urdiña ikusten da. Arratsaldeko aize epelak ez daroa

gure ortutik, gaur sei egun eroian soinu alairik.

Joan dira mutillak euren etxeetara. Txistulariak be, alde egin euskun bere errirantz. Besteai lez, dana erre jakon mutillari. Soñekoagaz geratu zan, eta olantxe treneratu: deporteko zapatillak eta «vaquero» prakak, buruan txapela, ta eskuetan... bere pozaldietako txistu maitea. Besterik ezer be ez.

Seminarioak dana galdu dau sutan. Kurso amaieran, esamiña aurretxean, liburuak be erre. Euskal liburuak be bai, danak. Aurten lez izan geinke gero, datorren urtean be, Euskalerrri osoko idaz-konkursoaren irabazlerik?

Sua bere bearrean ebillen bitartean, bertan ikusi genduan inguruko erritarren biotz ona, Forutarrena guztien gain. Aundi ta txiki, gizon eta andra, danak emon euskuen euren laguntasuna, sua amatetan, komentuko gauzak salbetan, eta gauerako etxea eskiñiaz. Gure mutillak olantxe izan eben gau triste aretan afari gozo ta oge bigun. Aita Frantzisko Asiskoak lortu deioela danai Jaungoikoagandik guzti orren saria.

Orain zetan gagozan? Foruko komentua barriztatu ta oraiñarte baiño be geiago izatekotan. Gernika inguruetaoak ementxe dauke batez be euren frantziskotar biotza. Zelan itxi daikegu ba bere taupadea ilten?

Foruko goi urdiñetan, eguzkia dakar udabarriak diz-diz. Suak, anai suak!, eroan egin deuskuz gure Seminario zaarreko amesak. Alandabe, komentu ondoan goizero zabaltzen jakuz larrosak gorri, suaren pareko. Inguruetaoan biotzak be, loratu egin jakuz. Oraiñarte lagundu deuskue. Orain eta geroago be, geurekin izango ditugulakoan gagoz. Eskerrik asko danoi.

A. ZURUTUZA

## SANTUTXUKO EUSKAL EGUNA

Urtero Santutxun egiten dogun euskal egunari usain geiago emoteko, umeen artean idazte sariketa bat egitea erabagi dogu. Oneexek izango dira sariketa orren betebearrekoak:

1goa. Sariketa ori, 14 urterik beera-ko umeentzat izango da.

2gna. Euskalerrriko ume guztientzat denezkeroko, edozelako euskeraz idatzi leiteke.

3gna. Ume bakoitxak lan bat baiño ezin izango dau bialdu.

4gna. Artutako lan guztien artean, lau onenak aukeratuko dira: bi neskatilla artean eta beste bi mutiko artean.

5gna. Aukeratutako lanen idazleak, ona Santutxura etorri bear-ko dabe, emen bertan beste lan bat egiteko. Lan au, lengo lana berea ala iflorena dan jakiteko da, eta bakar bakarrik egin bear-ko dabe. Santutxura joan-etorria, eratzailleen kontura izango da.

6gna. Lan orreen luzerea, orrialde bikoa gitxienez eta eskuz naiz makiñaz idatzita.

7gna. Lanak, toki onetara eta zuzenbide onegaz bialduko dira:

Joseba Arrieta Txertudi  
Zabalbide, 60, 5.º, C  
BEGOÑA-BILBAO

8gna. Lanaren goi aldean argi argi, nor eta nungoa zarean ipiñi bear dozu.

9gna. Lanak, datorren illaren (bagillaren) azkenengo egunerako bialdu bear deuskuzuz.

10gna. Sariak, naizta onak izan, ez dira diruzkoak izango, bestelakoak baiño. Neskatillentzat, metro erdi baiño geiagoko andrakilla eder bat, bere abarka, galtzerdi, gona gorri eta buruko zapiagaz jantzita, eta beste gauza asko. Mutikoentzat, mekano eder bat eta beste sari asko.

LANDOLA-ERRAMINTAK

LAN-TRESNA GUZTIETARIKOAK

GALTZAIRU KALIBRATUAK

LEUNKETA GAIK

## FERRETERIA UNZETA

Apartado 18. Ibarrecruz, 14

Urrutizkiña 71 10 00

EIBAR

## ANAITASUNA

amabosterokoa

8

Euskalerrriko Anai Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURU

Zuzenbidea: Torre, 3, 1.º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaiña: 75 peseta

Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 161 gn. zenb. — 1968'ko Maiatzak 30

D. L.: BI 1.753 — 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12

# Irakurleen eritxiak

## Itz internazionalak

Egun oneetan, orri bat bialdu deuste Britaniku Komertzio Kamaratik. Bertan emoten deuste Inglaterrako kolegio baten barri.

Orri orretatik atal bat aukeratu dot, eta al dodan ondoen gazteleraz eta frantsesez ipiñi dot. Ona emen:

*«Change by political methods is uncertain and not rapid. The force of example is necessary and, to be effective in this area of strongly entrenched opinions and practice, it must be on a scale and of an academic stature, to promote conviction.»*

«El cambio por métodos políticos es incierto y no rápido. La fuerza del ejemplo es necesaria y, para ser efectiva en este terreno de fuertemente atrincheradas opiniones y prácticas, deberá ser a escala y estatura académicas, para promover el convencimiento.»

*«Le changement par méthodes politiques n'est pas certain et pas rapide. La force de l'exemple c'est nécessaire et, pour être effective dans ce terrain de fortement reînchées opinions et pratiques, devra être à scale et stature académiques, pour promouvoir des convictions.»*

Aspalditik jarri ditue Inglaterran mundu guztiko gazteentzat eskola berezi batzuk, naziño askotako neska-mutillen artean alkar adiskidetasuna ta ezagutzea eragiteko, ta olan gerrearen arriskua zelanbait alden-duteko.

Baiña nik ez dodaz iru atalok emen ipiñi, eskola orreen propagan-dea egiteko. Nire asmoa, beste bat da.

Ikusi zeinkeenez, iru atalotan erabilten direan ia berba guztiak bardiñak dira.

Euskaldun asko, Bizkaian batez-bere, asarre jarten dira, erbesteko itzakaz euskeraz zerbait idatzi edo esaten bada. Eta nik diñot, zegaitik ori? Zegaitik ezin geinkez berba internazionalak euskeraz erabilli, mundu guztian usetan badira?

Itz barriak asmatzea, gauza ederra da; baiña geienetan, itz barriok

ulertzeko gatzak izaten dira. Berba barriak asmatu gura dituenak, asma daiezala. Baiña, erbestetik jatorkuzan itzak bakean itxi deiskuezala. Berba bi eukitea, bat bakarrik eukitea baiño oba da.

Itz internazionalakaz, gure euske-rea, beste izkuntzak lez, aberastu egiten da, bere idiosinkrasia ezetan be galdu barik.

Erdaldun askok —geienak— olako itzak euskeraz entzuten ditue-nean, euskera mordoilloan berba egiten dogula diñoskue, orrako itzok eurenak bakarrik direala uste dabela. Erdaldun orreek kultura gitxi dauke, eta etimologia kontuan oso urri dabilta.

Itaundu eioezue, ea gazteleratik ete datozen urrengo berbak:

**Automobilla, barra, botanikea, demokrazia, diputadua, justizia, kafea, kilometrua, laranja, neumatikua, patatea, pianoa, presidentea, radioa, tabakua, taberna, teia, telebisiñoa, tomatea, txokolata,** eta abar.

Itz oneek ez datoz gazteleratik, latin eta griegotik, ingles, italiano, arabe, txino, persa ta mexikanotik baiño; eta mundu guztiko gizonak erabilten ditue, pozik gaiñera, internazionalak biurtu dira-ta.

Zegaitik ezin geinke bardin egin euskaldunok? Mundu onetakoak ez gara ala? Europa Ozidentalean ez gara bizi ala?

Nire ustez, sasoa da, euskaldun mito au desegiteko.

Gure euskaldun sustraia bizirik euki ezkerok, euskaldunok beti iraungo dogu euskaldun, naizta berba internazionalak erabilli, txapelagaz zein bizarragaz ibilli, zortzikoak abestu naiz musika modernua jo.

**JOSE LUIS ALTUNA, Bilbao**

## Bertsolariak eta abeslariak



Bai ANAITASUNAN eta bai beste euskal aldizkarietan, bertsolarien prolemak erabilliak izan dira. Usurbilko Jose Antonio Arzak —txalapartaria bera, «Ez dok 13» taldekoa— oraingo bertsolarien kontra idatzi eban DANTZARI aldizkarian.

Arzak esaten eban, gure denporako bertsolariak ez dabezala euren bertsuetan gaurko prolemak erabilten.

Arzaren lan au irakurri nebanean, joan dan urteko Durangoko txapelketan entzundako bertsoak gogoratu nebazan.

Arratsaldea zan, eta Santa Maria eleizako atarian batu giñan, estu estu, eunka lagun. Alpontso Irigoyenek ipiñi eban gaia: ugazaba ta langilleen prolemak. Bertsolariak, uts.

Egia esateko, euskaldun bertsolariak, edo itxasaldekoak edo baserrikoak dira. Tamalez, ez daukaguz bertsolari langilleak. Zelan erabilli leikez iñok, bizi ez dituan prolemak, naiz eta orretarako berrondeate ona izan?

Bertsolarien utsune ori, euskaldun abeslariak asi dira betetan. Euskaldun abeslari gazteak, euren kitarraz, gaztedia eurakanatu dabe ta dardaraz jarri. Gizarte gaiak erabilliaz eta oker dagoanaren kontra abestuaz, mundu obeago baten itxaropena sortu erazo dabe gazteen biotzetan.

Ez daijala iñok pentsa, ni bertsolarien kontra nagoana. Ez. Bertsolari zale purukatua naz, bai eta euskaldun abeslari barrien zalea. Biak bear doguz. Baiña bertsolaritzeak gaztedia batu gura badau, Abel Muniategiren bideari jarraitu bearko deutso; au da, gure inguruari begiratuaz, gure gaurko prolemak erabilli bearko ditu.

Ondo dago, udabarriaren edertasuna abestutea; ondo, gazte pare baten alkarrekiko maitasuna kantatzea; ondo, bromazko bertso batzuk botatea. Baiña ez aaztu inguratuten gaituen okerrak. Abestu alai, itxaropentsu. Egin beartsoak tris tura barik. Baiña biztu biotzak, jarri lanean jentea. Ipiñi martxan Euskal Erria.

XABIER GEREÑO

## Gure arpideduneri


Aurtengo ANAITASUNA oraindiño ordaindu ez badozu, olantxe egin zeinke: ANAITASUNAREN urrengo numerua (bagillaren 15koa) karteruak eroango deutsu etxera ta berak eskatuko deutsu aurtengo arpide saria, 75 peseta.

Erri batzuetan, euskaltzale batzuen bidez elduko jatzue aurtengo erreziua, bagillaren lenengo astean.

Ondo erantzungo dozuelakoan, aurretiaz emoten deutsueguz eskerrak.

ZUZENDARITZEA

# Aita Arrupek Nortamerikako jesuiteri zuzendutako idazkia



Idazki onen mamia ezagutuko dozue, bearbada. Alandabe, bertan agertzen diran errazoiak gogoratzea ondo egongo da-  
la uste dot. «Problema racial» edo gizon baltzari buruz diardu idazkiak.

«Tamalgarría da gogoratzea, jesuita etxe askotan, joan dan gizaldiko gudu zibillaren aurrean, gizon baltzak erosten zirala, lan eragiteko. Lotsagarria da gogoratzea, oranidiño aintxiña ez dala, ez zirala gizon baltzak jesuiten ikastetxeetan artzen, naizta baltzak katolikuak izan. Eta ori, naziñooko legeak bardintasuna aginduarren. Oraindiño gaurko egunetan, ba dagoz jesuita etxe batzuk, azalezko artuera bat baiño ez deutsoenak egiten gizon baltzari. Osasungarria da guretzako, gauza oneek gogoratzea.»

Ango jazoereri ikusketa bat eginda gero, Aita Arrupek diño: «Giza joak eskubide guztiagaz eskatzen dagoz, leku egin dakioela erriaren aurrerapenean. Zuzendari billa dabiliz, benetako bearrianagaz, lurreko aberastasunetan eskubide apur bat lortuteko; euren ezereztasunetik, euren betiko menpekotasunetik urteteko.»

Gizon baltzen alde benetan lan egin daben taldeak bere, ba dagozala diño; baiña ez litzakela txarto egongo bakoetak bere gogoari itaundutea, ea zegaitik egin dan ain lan gitxi gizon onen alde. Aita Arrupek azaltzen dau, erabagi garbi bat artu bear dala prolema onen gainean. Benetan konprometidu bear dala bakoetza azkeneraiño, naizta orregaz diru laguntasunak galdu, naizta altsuen babesba galdu.

Ez da gure Erri au, gizon baltzen Erria; baiña bear geunke, Aita Arrupek orrelako idazki bat gure jesuita ta abadeeri bialtzea. Bear geunke norbaitek itaundutea, ea gure eleizgizonak aurkitzen ete diran errian sartuta. Ea euren lanak benetan

artzen ete dituan gure erri onek daukazan gorabeera ta bearrian guztiak. Ea euren lanagaitik azkeneraiño lotuta ete dagozan eleizgizonok gure erriagaz. Ez da naikoa ikastola batzuk ipintea, euskerearen alde zerbait egitea. Ori, erriko agintariak be egiten dabe orain. Ezin leiteke uste izan naikoa danik, meza bat euskeraz ipintea, sermoia ta dotriñea euskeraz emotea. Beste eskubide asko be, zapalduta daukaz erriak. Gauza guztion alde jokatu bear da.

Ezin geinke aaztu, ondo jokatu daben abade zintzoak be egon dirala, erriaren eskubideak zaindu dituen eleizgizon jatorrak. Ederto egin dabe; baiña ez da naikoa, ori bein baten bakarrik egitea. Ori, bizitza guztian zear, egunero egin bear dogun lana da.

Ba dagoz gure Errian beste abade talde batzuk, begiak zabaldu bear litukeenak. Obrerista aundiak dirala uste dabe. Euren ustez, lan aundia egiten dabe bear gainen artean. Ez litzake txarto egongo, bearbearrezko gauza batzuk ikasten asiko balitzaz. Lenengo ta bein jakin daiela, gi-

zoz unibersalitatea guzurrezko gizona dala, ezin izan leiteken gauzea dala. Abadea be gizon bat da, eta erri bateko gizona, Emengoa bada ta emen bizi bada, Erri onen alde jokatu bear ko dau. Txinan badago, Txinako erriaren alde. Langilleak be, erri bateko langilleak dira.

Abadea ezin leiteke jarri erriko gorabeeren gainetik. Ezin leitez albo batera itxi bere erriko gizonen bearrianak eta burrukak. Abade batzuk, erriaren promoiño ekonomikuaren alde lan egin bear ko dabe; eta beste batzuk, zapaldutako eskubideak lortzeko.

Aita Arrupek eskatzen dauan lez, eleizgizonen konpromisuak garbia izan bear dau, euren jardunak osoa izan bear dau, eskubideak geien zapalduta daukezanen alde lan egiteko. Ez dira jagon bear erriaren diruzko ondasunak bakarrik, baita bere izkuntzea ta beste eskubide guztiak be. Au da, eusko langileen aldekoa izan bear ko dau eleizgizonaren jokaereak. Ze langilleak dira, esatea lez, Euskal Erriko gizon baltzak.

ARIZPE

## Bertsolarien txapelketa nagusia

Jokatzeko erea aldatu bear litzake

Aspaldi da —urte bi inguru— esan genduala, bertsolariak epaitzeko erea aldatu egin bear litzakela.

Arrezkeroko jazoerak, sendotu egin dabe gure orduko eritxia. Ainzuzenbe, bertsolari asko, eta ez txarrenak, ez dira txapelketara azaltzen: esaterako, Azpillaga, Lizaso, Lasarte..., Basarri bera. Entzuleak asarre dira: gogoratu daigun, Donostian Xalbadorregaz jazo zana.

Jazoera oneek ikusirik, Euskaltzaindiko eta bertsolarien epailari dan J. M. Lekunak, Zeruko Argian esan dau: «Txapelketea egiteko era au amaitu ete da? Ez ete litzakez beste bide barri batzuk artu bear?».

Lekuona jaunak errazoiak dauko. Bide barriak artu bear dira. Ona emen, al dandan laburren, nire eritxia.

Lenengo Kategoría eratu

Asteko, bertsolariak ez dira aukeratu bear Txapelketa Nagusirako probintzia bakoxtetik bi, orain egiten dan eran.

Azken txapelketea edo Txapelketa Nagusia, Euskalerriko amar bertsolari onenakaz jokatu ko da, izan daitezcan lapurtar, napar edo bizkaitar.

Amar bertsolari orreek osotuko dabe Lenengo Kategoría.

Amar bertsolariok Txapelketa Nagusia jokatu ostean, puntuaziño onena dauken sei onenak geldituko dira Lenengo Kategorian.

Eta beste laurak, Txapelketa Nagusian azkenengo geratu direanak, Promoiñozko Txapelketa bat jokatu ko dabe urte guztietan, Euskalerriko txapelketa baten lenen gelditu direan lau bertsolariakaz.

Promoiñozko Txapelketa onetako lau onenak, Lenengo Kategoriarra igongo dabe.

Nai izanezkero, eratu leiteke Bigarren Kategoría bat; baiña gauzak larregi naastutea izango litzakela deritxagu, oraingoz beintzat.

Txapelketa Nagusia zelan jokatu

Txapelketea zelan jokatu bear dan aztertu orduko, oar batzuk egin gura geunkez.

Txapelketea batek, egokia izateko, bear dau:

- 1.º Bertsolarien larritasuna arindu.
- 2.º Gaietako suerte onak edo txarrak ez daijala jokatu.
- 3.º Bertsolariak eukiten dauan eguneko aldarteak ez daijala txapelketea erabagi.
- 4.º Juradu edo epaimaiekoeñ lana erretu, artzen dituen erabagiak alik zuzenenak izan daitezcan. Batez bere entzuleak ulertu daiela, epailarien erabagia zuzena dala, eta ontzat artu bear dala.

Urrengo baten, lau puntu oneek banan banan aztertuta gero, esplikatú egingo dogu, gure eritxiz txapelketea zelan jokatu bear litzakela.

HERNANDORENA

## Esekuo

Txirrindularietan ospatsua izan zan aldi baten Esekuo gurea.

Ziklisten artean, esan gura dogu.

Etapa geienetan, bigarren edo irugarren eltzen zan. Irakurle askok goratuten eben Esekuo. Alako mutillik! Beti edo ia beti lenengoari txirriña miasketan, igurtziten.

Baiña, kontxo! Guztien mailla osokoa, «generalean» iñoiz be ez eben ikusi al izaten Esekuo azkarra. Zelan egiten ete zituen, ba, epaimaikoak, txirrindulari bako-txaren neurtzeak?

Oraingo ibiltaldietan, ez dogu iñun ikusi Esekuo (Ex aequo). Aren orde, emengo egunerokoak m. t. letrak ipinten ditue... eta kittu!

Agur, ba, Esekuo! Latiña beerantza doana ezagun da.

## Vascongado Itza

Askok eta askok, gu euskaldunok izentatuten gaituenean, **vascongado** berbea erabili oi dabe. Irakurle batek itaundu deusku: zer ete da —gado ori?

Ezin neizu gauza ziurrik erantzun orain beñeon, irakurle maite.

Egitekotan, jakitunak erantzun al izango leuskizue. Baiña «Kaleko gizona» zeure antz-antzekoa dozu.

Izan, ba dira emen Bazkume batzuk, izenondo ori daukenak. Ez ete litzakizu onurakorrago eurei itaundutea?

Godo itza Estorian ikasi genduan. Ain zuzen be, godo errege guztiak jardun izan eben euskaldunakaz burruka etenbaketan. Eta «kronikak» diñoenez, euskaldunak galdu, eta godoak irabazten zituen burruka guztiak. Alata be, godoak amaitutzat dagoz; euskaldunok ez, barriz.

Euskeraz ba dogu itz bat, bearbada, aengandik jasoa: gudu, guda. Godoak euskaldunengana agertu eta gudu egitea, zer bardiña zalako, arenbaten. Gudari itza, ortik sortua da. Frantses euskaldunak gerlari esan daroe.

Baiña —gado ta —gada atzizki orreek, ez dirudie gureak. Gaztelaniak berak be, txit bakanak ditu.

Gauza bat esango deusut ziurra, orraitio. **Vascongado** ta **vasco** bardiñak direala, ikusi dogun iztegi batean. Ostera, batzuk ez dabe iñoiz be, **vasco** esango; geien be, «Bascongado». Eta orra! arean bere, ez dogu oraiñarte «vascongadunce» iñun irakurri.

Tira, zeozer da ori be!

## Alargunak

Gure egunetan, ezkontzen zireanei erretratuak ataretan eutsezan, senar-emazteai,

ain zuzen bere. Ezteguna joaten zireanak be, iñoiz, guztiak urteten eben argazkietan, «fotoetan».

Oraingo aldian, barriz, andra-barri egin direnei, bakarrean egiten deusez erretratuok.

Ez al dozuz ikusi, irakurle, Bilboko Gran Vian bertan, eskaparate aundian, emakumeak zurizko jantzita... baiña bakarrik?

Leengoan, umetxu batek bai esan be, bere amatxuri, zurizko foto ederrok ikustean:

—Ene, ama! Begittu zenbat lenengo jaunartzeko erretratu!

Gure senide batek, emakumea bera, auxe esaten daki:

—Amaika alargun barri oraingo al-dian...!

## Karguak laga?

Leengo baten, «El Alcázar» paperean zala uste dogu, idazle batek zera eskatzen eban: eleizgizonak, politika kargu guzti guztiak laga bear zituela.

## Martin Aldazabal

EUNAK

SOIÑEKOAK

AZPIKOIALAK

Emakume, gizon, gazte ta umeentzat  
Baita etxerako gaiak, zatika naiz atonduta

Tel. 21 04 84

23 12 85

23 12 86

23 12 87

Tendería, 3  
BILBAO (5)

## ANAITASUNAREN

**zuzenbide barria**

Torre, 3, 1.º  
BILBAO - 5  
Tel. 24 14 67

Idazle bakan eta ume-arimaduna!

Kardenal izateko egarriaz dabizan gizonak, zelan orrelako kargu deigarriak itxi? Izan be, Cisneros ta Richelieu, esaterako, izen aundikoak izan zirean, eta antzemon gureak kilikili egin oi deusku gizonoi.

Santutasunean be, aundiak izan ete zirean, orraitio?

Eleizgizonak, arimako gauzetan itau-rreko bear litzatekez, batez be. Ez errieta-ko agintari izateko.

Ez da bapere betegarri, lurreko ardu-retan gar aundiago izatea, betikoetan bai-ño zerago. Ori, edonogan baldin bada, eleizgizonetan, zeresan bakoa.

On igeskorak ez dagiezala gure begiak lausotu. Ori esan gura ete eban «El Alcázar»eko idazleak?

KALEKOA

## GOI-BIDEZ GOGO JARDUNAK

Aita Txanton Goiria karmeldarrak  
bizkaieraz egiña

Lareun eta ogetairu orrialde  
Salneurria: 150 peseta

Eskatu:

Aita Karmeldarrak  
EIBAR — Gipuzkoa

## FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan

MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale  
Zerra — Uraga  
Uraska

Europako aurrerapenik onenak  
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)

## DEMOKRAZIA: REQUIESCAT IN PACE



Rudi Dutschke

Emen bere, uda bero bat aginduten deuskue estudiantek. Eta udabarri beroegi bat egin deusku. Amerikan Luther King pazifistea tirokatu daben artean, Rudi Dutschke erreboluziñoigillea tirokatu dabe Berlinen. Eguen Santuan zan. Eta arrezkero uri guztietan izandako zalapartak, eundaka zauritu, ildako bi, milloika marku aleman kosta jakoz demokraziari. Fanatiko batek Dutschke'ri buruan, matraillan eta bizkarrean jotako iru tirok altxatu eben protestea. Axel Springer, periodiko askoren jabearen kontra izan zan batezbe protesta ori; baiña Axel Springer'en atzetik demokrazia dagoala, ez dago ez ikusterik: askatasunaren kontzeptua, politikea, oposiziño sistema, *establishment* berbeagaz kondenatuten dan guztia.

### POLITIKEA

Estudianteen gorabeerak mundu guztian dagoz modan, zelanbait esateko. Baiña ez da moda utsa. Emen bearbada iñun baiño obeto ikusi daikegunez, gure munduaren komedia da: industria bat altxatu daben gure aurreko generaziñoak ez dabela gizonaren moralik altxatu. Eta galtzairuzko kortiñearen alde batetik naiz bestetik, orrekek sortu dau deskontentua. Montatuta daukogun gizartearen erakundea ez da sifisgarri, ez da morala.

Politikea falta da, berba au griegoak ulertuko leukeen zentzunean. Erria zainduteko ardura ta posibilidadade benetakoak falta dira. Eta Alemaniak, gerra ostean, ez dau sekula politikarako posibilidadaderik ezagutu. Eta orain be, orixe gertatu da. Baiña oraingoa Aste Santuan asi zan, eta kalbario bat biurtu da. Politikearen ordez, alde batetik ideologia, fanatismoa, protestea ta desordenua; eta beste aldetik histeria, egurkadak, poliziaren indarra ta porrak. «Tranquilidad viene de tranca» esaten eben bromistak leenago. Eta oraingoa, orixe egin dabe aleman serioak.

Nazismotik urtendako Alemanian, krimen politiko batek asko esan gura dau. Baiña askoz geiago esan gura dau, krimen orren ostean gobernuak burua galtzen badau. Askoz geiago esan gura dau, bakean protestetan daben estudianteari poliziak porrazoka erasoten badeutse. Eta etxeetako zibillak manifestanteen kontra txakurrak jaregiten badabez. Eta poliziak informaziñoa galerazoten badau. Arrazoi guztiagaz lamentatu da Londreseko *Times*: «Demokratikoa esaten dan Estadu baten, kaleko manifestaziñoak poliziaren indarkeria barik ordenamentuan egin leitezkezala itxaron bear litzake».

### AXEL SPRINGER

Periodiko askotan, gure artean —Españiakoetan esan gura dot—, Axel Springer gizon aberats bat baiño besterik ez balitz lez itz egiten deuskue. Baiña ez dabe esaten, Berlingo periodikoen merkatan euneko irurogetamarra (70 %) Springer'en eskuetan dagoala. Ez dabe esaten, Alemaniako amasei milloi periodiko-irakurle Axel Springer'en jabetza pribadua bihurturik dagozala. Domeketako periodikoetatik euneko larogetazortzia (88 %) arena dala. Kanean saltzen diran periodikoetatik euneko larogetabata (81 %) be bai. Ez dabe esaten, azkenengo amar urteotan Alemaniako periodisten Alkartasunak alperrik protestatu dauala orren kontra. Eta ori guztia ez dala demokrazia, erri eritxiaren manipulaziño mixerable utsa baiño.

Erri eritxia manipulatu edo faltsifikatu dagoan errian, ez dago askatasunaz mintzatzerik. Eta ori libertadearen izenean egiten danean, libertadearen limitaziñoa da egiazko libertadearen garantia bakarra. Alperrik eskatuten dau periodisten Alkartasunak, enpresario baxotxaren poderioa periodiko guztien euneko amarrera (10 %) laburtuteko. Axel Springer'en periodiko batek bakarrik, *Bild* periodikoak, eguneroko guztien euneko ogeia (20 %) egiten dau. Eta emetzi periodiko ta astekari daukoz Springer'ek!

### SDS DEBEKATUTA?

Protesta au guztia, SDS estudiante sozialisten Alkartasunak moldatu dau, metodo zantarragaz baiña asmo zuzenagaz be bai. Denak dakie, gauza asko ez dabizala ondo SDS Alkartasunean. Baiña orain zurrumurrua zabaldu da, dabekatu egin gura dabela Alkartasun ori be. Orixe da errezena. «Legalidadearen» izenean jokaturen dabenak naikoa dala uste dabe, oposiziño talde bat «legalidade» orretatik kanpoan ixtea. Olantxe egiten da, izan be, eskuak ezetarako loitu barik: «egiak eta beti egiak esanaz», guzurra zabaldu.

Demokraziak bere burua defenditzeko totalitarismoaren metodoak erabili bear badauz, oba da gauzak klaru esan eta ez iñor engeñiatu. Eta ba dirudi, demokraziak bere buruaren suizidioa dekretatu gura dauala Alemanian. Azkenean egia izango da Nietzsche'k esaten ebana: «Alemanak atzoa ba dauke, biarra be bai ba dauke, baiña gaurrik ez dabe bapere».

### NOR NOR DAN

- **RUDI DUTSCHKE**: erreboluziñoaren sinboloa. anarkiaren sinboloa. askatsun totala gura daben buruzagia ta demagogoa. Mao ta Che Guevara profetak estudiatzen dituana, ta semeari Che izena emon deutsona. eta alemanak jasan ezin dabena. Alemania komunistatik federalera iges egindakoa. Eguen Santuan iru tirok jota, hospitalean dago.
- **JOSEF BACHMANN**: estudianteari tiroak jo deutsozana. sinbolo bat. komunismo izena bera entzun orduko, umorea galtzen dauana. guztiaren gaiñetik ordenea, garbitasuna ta demokrazia gura dituana. baiña «bere» demokrazia. bere kuartuan Hitler eta Napoleonen irudiak eskegita daukozana, eta Españiako ezpata bi ta Valenciako korrida irudi bat. eta Alemania komunistatik federalera iges egindakoa. Poliziagaz tiroka jardun ostean, tiro bik jota, hospitalean dago au be.

*Rudi Dutschke ta Josef Bachmann*, aren asesinoa, biak hospital baten dagoz. Biak doguz gurasoen etxetik aldegiñak. Eta azkenekoa, Bachmann, sasikume esaten danetakoa. Biak doguz gizarte demokratiko esaten danaren frutu tipiko. Espartanoak biak: ez edan, ez erre. Ta gurasoen mundua gorrotatzen dabenak. Diru falta barik, eta ijituen moduan bizitzea atsegiñago dabenak.

JOSE AZURMENDI

# LARRAURIKO MONJEN AUZIA

## Euskerazko mezea dala ta ez tala

### «Vida nueva»k dakarrena

Orain esango doguna, Larraurain jazo da, orain asko ez dala. Larrauri, Mungi aldeko erri txiki bat da. 600 bizilagun gitxi gorabehera. Danak euskaldunak, geienak baserritarrek, gau ta egun euskeraz egiten dabenak. Mezea entzuteko, leku bitara joaten dira: batzuk parrokia eleizara, eta beste batzuk monja komentu batera. Jente askori obeto jatorko monjen kapillea, parrokia asagotxu egiten jake-ta. Orregaitik, monjengan jentea naikoa batzen izan da: batzutan 200 persona.

Baiña, emen dator gorabehera. Monjen kapillan erderaz egiten zan mezea, Bizkaiko monja komentu ta kolejio guztietan aginduta dagoan lez. Agindu au obispo jaunak emon dau, «**monja askok euskeraz ulertzen ez dabe-ta**».

Joan dan udazkenean kapellau barri bat etorri zan komentura. Eta beronek adierazo egin eutsen monjeri, gauza ona izango litzakela, domeketan beintzat meza ori euskeraz esatea, «**Euskalerrian gagozalako, komentuko monja batzuk euskeraz ba ekilelako, eta beste enparaduak erriko izkuntzea ta oiturak ikasi bear zituelako**».

Lenengotan, komentuko monjak ondo artu eben kapellauaren esana. Baiña laster etorri zan komunidadeko batzuen protesta-ziñoa. Orduan Ordenako nagusiagana jo eben kontseju billa, eta beronek erantzun eutsen «**erria etorten bada, erriaren izkuntzan mezea esateko, Kontzilioak aginduten dauan lez; eta konforme ez dagozan monjak, erriagaitik sakrifizio ori egiteko**».

Orduan monja batzuk, soluziño orregaz pozik ez egozanak, obispoagana jo eben; eta beronek. **lege kanonikuak** eskinten deuston eskubide guztiakaz, erantzun kontrarioa emon eban:

«**Orrazio meza ori, monjentzat eta kolejioko ikasleentzat bakarrik da. Ez Larrauriko jentearentzat. Kapillea, kolejioan bizi direanakaitik bakarrik jaso zan. Larraurikoak ez dauke esku-biderik, otoizleku ori euren zerbitzurako zabalik eukiteko. Bertara joan al izatea, monjak egiten deutseen mesede bat da.**»

«**Kapellaua, kolejioaren zerbitzura dago. Ango bearrizanak eta interesak euki bear ditu beti kontuan, orrexetarako izentatuta baitago; eta ez egin ezer, kolejioari zelan edo alan txarto etorri leitekionik**».

Obispo jaunaren erantzuna gorabehera, kapellauak euskeraz mezea emoten jarraitu eban. Albo errietako abadeak kapellauaren alde jarri zirean; eta danon artean egiñiko idazki baten, euren jokabidearen errazoiak azaltzen zituen: «**erriaren espri-tuzko baloreak zaindu**» eta «**Kontzilioak irakasten dauan erara lan egin**».

Orduan obispoak, bien erdiko soluziño bat eskiñi eban: be-tiko orduan, erderaz esan mezea monja ta ikasleentzat; eta gero, beste ordu baten, bigarren mezea euskeraz erriarentzat. «**monjak Larrauriko erriari laguntzeko prest dagoz-eta**».

Abadeak erdizka onartu eben obispoaren soluziño au. Lengo orduan esango eben euskerazko mezea, ordu ori erriarentzat onena baitzan; eta erderazko mezea goizago esango eben monja ta ikasleentzat.

Azkenez, zezeillaren (febreruaren) 21ean, obispoak kendu egin eban kapellaua bere kargutik, «**bakeari eta kolejioko eskubi-deeri kasu egiñik**».

Abadeak guztiz txarto artu dabe obispoaren azkenengo neurri au. Euren ustez, «**neurri ori antipastoral ta gogorregia da, kapellauari ez jako egin justizia, eta zapaldu egin da erriaren arimea**».

Auxe izan da Larrauriko monjen kasua, euskerazko mezea dala ta ez tala. Jazoera onek beste prolema aundiago bat ipinten deusku begien aurrean: zer egin bear daben monjak, erriagaz bat eginda biziteko.

Ikusi daigun orain kasu onen iruntzia. Espaiñiako monja karmelita batzuk Libanora joan dira, orain asko ez dala, ko-

mentu bat bertan fundatzera. Eta erriagaz alkartuta biziteko, angu berbetea ta osterantzeko oiturak artu ditue eurentzat, naiz-ta komentu barruan beti egon bear eta euren bizimoduaren testigu Jaungoikoa bakarrik izan.

### Irakurle baten eskutitza

ANAITASUNAREN zuzendari jauna:

Lengoan artu neban Mungi aldeko abadeen idazkia. Aurretiaz be, zeozer entzunda nengoan. Zeozer ez, gauza asko baiño. «**Vida Nueva**» errebitan be irakurri neban.

Gauzak obeto pentsatuta gero, auzi oneri zer deritxozun jakin gura neuke.

Ni neu ez nago konforme esan dan guztiagaz, egin danagaz, eta egiteko modu orregaz batez be.

Orain urte bi, Gernikako Mertzedeako komentuan beste orren-beste izan genduan; baiña denporeagaz eta geldiro, ederto konpondu ziran gauzak. Zegaitik ez Larraurain? Eta gertatutako orregaz, nok irabazi dau? Monjak? Obispoak? Erriak? Abadeak? Nok? Jakin leiteke? Beste biderik ez da egon? Ainbeste zarata, berba ta burrun-dada... eta azkenean, danok txarto. Ez da egon bide obarik? Benetan? Ez! Bakotxak geurea nai badogu, eta bakarrik geurea, ez dago bide bat baiño: geurea, neurea. Eta bestea ortik ez badator, arrika egin. Or dagoz adibidetzat ONU ta, gaurko egunez, Paris. Ain urrun joan barik be, eguneroko autuetan eta artuemonetan garbi ikusten dogu.

Egia ez dago, askotan, alde baten bakarrik, edo persona bategan. Eta badago be, besteari adierazo egin bear jako, dialogo edo alkar berbete baten bidez. Baiña olako dialogo bat aurrera eroan al izateko, kapaz izan bear da; pazientzia luzea, egi-maitasuna ta karidadea bear dira. Karidadea beti da bearrezkoa, eta egi-maitasuna be bai, egi ori geure kontra badator be. Au barik, ez dago dialogorik, dialogokeria ta berba utsa baiño.

Au dana egin da Larraurain? Maitasunik izan da? Justiziarik bai? Gaur modaz dagoz berba oneek. Oneek izan badira, zegaitik itxi dira ain toki txarrean Larrauriko monjak?

Nik jakin dodanez, ia monja guztiak, nagusia, onen urrengoa. jeneral, konforme ei egozan erriaren gogoia egiteko. Gitxi ei ziran, konforme ez egozanak. Oneexek jo ei eben obispoagana, eta gero gerokoak...

Ori olan bada, zegaitik egin jake ain boikot itzala komentuko guztieri? Bermeon, komentu aretako arrautzarik be ez eben erosi gura, monja erdaldunenak zirala-ta.

Zegaitik ipiñi da erri guztia monja danen kontra? Ori, zuzentasuna da? Karidadea ez dana, ba dakit. Baiña, nun dago justizia ori? Eta abadeak, abadeak izanda, zegaitik ez dabe tautik be esan karta orretan? Txistik bez. Kapellauari erruki aundia izan deutsoe, ta ondo dago; baiña ez da izan or beste injustizia bat be, eta bearbada aundiagoa?

Eta ori, eurak ixildu badabe, nok azalduko dau ba? Zelan ez dabe berba bat be esan, ori dala-ta? Iru edo lau monjagaitik, beste guztiak agertu bear dabe pekatari? Zer diño Legeko Agindu batek, famea dala-ta?

Zuzendari jauna, ni ez nago konforme. Monja orreen alde nago. Eta zuzentasunaren izenean, euren alde zeozer esateko obligaziñoan aurkitu naz. Obispoak txarto egin badau, beste batzuek ez dabe obeto jokatu. Onegaz ez noa abadeen kontra, ez. Maite dodaz; baiña arritzekoa izan da ixiltasun ori, ze jakingo eben errian zer esaten eta entzuten dan. Nik diñodana da, abadeagaz injustizia bat egin bada, monjakaz beste ainbat egin dala, eta au esan egin bear dala.

Zoritzarrez, oraingoan danok galdu dogu.

A. Z.

Bermeo, 1968, maiatzak 5

# JABIER ORMAZA OSTIKOLARIA



Algorta, Bizkaiko erri polit bat da. Antxe, kale ertz baten aurkitu dogu Jabi Ormazaba. Mutil gazte, zintzo ta ona.

Pozarren artu gaitu, euskal aldizkari baterako gentozala jakin dauanean.

Jabik, gaur ez daki alkarrizketa bat egiteko beste euskera; ulertu bai apur bat. Erderaz egindako au, euskeraz jarrita dakartsuet.

—Zenbat urte dozuz, Jabi?

—1944 garrenean, azillaren 29an jaio nintzan; beraz, 23 urte.

—Nun jaio zifian?

—Galdakanon.

—Zenbat anal-arreba zaree?

—Lau anai gara; arrebarik ez dogu. Algortan bizi gara.

—Kiroletan noiz asi zifian, eta nun?

—13 urte neukazala asi. Algortako «Kaptipunanti» taldean jokatzen neban. Atletikuko jokalarik gazteak txapelketa bat eratu eben; azkenean, bigarren gelditu gifian.

—Geroago jokatuz dozun taldeak?

—Getxoko gazteakaz iru urte. Gero 3gn. maillako Getxo zaarragaz urte bi. Andik Atletikura.

—Zegaitik ez dozu orain jokatzen?

—Ara ba! Alicanten Hérculesen aurka jokatzen nenbillela, oiña apurtu neban. 1966'ko azillaren 20'a zan. Arrezkero, Madrillen aurka jokatuz neban arte geldi.

—Uriarteri buruz zer esango zeunke?

—Uriarte, jokalarik oso ona da. Goimaillea ondo jatorko.

—Ta Iribar, zer?

—Iribar niretzat, beste askorentzat lez, munduko atezaiñik onena da.

—Atletikuan, zenbatek dakie euskeraz?

—Geienak. Ziur ez dakit. Alan be, nik gura neukean bestek ez.

—Zu zeu, euskeraz ikasten ei zabiltz.

—Ez da egia. Len, umetan jakin neban, Galdakanon jaio nintzan-eta, an umezarroan... Baiña gero, Algortara etorri. Gurasoakaz izan ezik, nogaz egifnik ez. Oraindiño umetxua nintzan-eta, galdu egin neban zoritxarrez lengo erreztasuna. Gaurko beste jakin izan baneu...

—Gerorako dozuzan asmoak?

—Lenengoa, betikoa: Atletikuan jokatuz.

—Zauritze orren gafiñera, izan ete da beste eragozpen bat, ez jokatzeke?

—Ezetz esan bear. Nire lekukoak, aurrelariak, ondo ibilli dira. Nire bearrizanik ez dot uste izan danik.

—Atletikuan jokatuz aurretik, zetan zifian ziduzun?

—Unquinesa'n ibilli nintzan lanean, 5 urtean, mekanikutzan. Gero, Atletikura joateko itxi neban a.

—Atletikuaren urrengo, zein da maiteen dozun ostikolari taldea?

—Donostiko Erreala, duda barik. Gero Bartzelona, Espafiola ta...

—Gure ustez ta gurariz, Atletikuak Kopa Txapelketan nagusi bear leuke urten. Olan balitza, azken jokoaldia nortzukaz jokatuz zeunke atsegifien?

—Irabazteko, Córdoba, Elche, edo olako bat da onena. Giro ona izateko, Donostiarrak neukez guren.

—Nun?

—Jokoaldi bitan izan ezkerro, Donostian eta Bilbon. Jokoaldi baten izan bear baleu, Gazteiz da egokiena.

—Askok uste dau, Jabi, lengo ostiko pelota joko ta oraingoa ez dirala bardiñak. Zuk, lengo erara jokatzen dozula diñoe. Zer deritxazu?

—Nik neuk, baloia oiñera area barruan baletor, beste barik, beti jaurtikoko neuke golera. Joko zelai erdian etorri bajatort, izan leiteke olakoan apur bat tropea izatea.

—Ba dira diñoenak, Zarra ostikolaria apaintasunik bakoa zala; alan be, Athletikoren onerako parebakoa. Zuk aukeraterik bazendu, noren antza izango zeunke gurago, Zarrarena ala Mendoza lako batena?

—Jokoan apaifia izatea, ona da; gol asko sartzea, ohea. Olan, Zarra lako izan gura neuke. Zarraren antzera jokatuz leukean aurrelari bat, bildurgarria izango litzake gaur.

—Irabazi al gelnke goi-izen bat?

—Bai orixe. Aurten, kopea irabazi bear dogu.

—Ostiko pelotaz gafiñera, zure zaletasunak?

—Kirol guztiak dodaz maite: txirindularitzea, esku pelotea, oiñezko lasterketak. Mendigoizale ta ibilttuna be ba naz. Onez gafiñera, zinema ta musikea dodaz maiteen, teatroa ta kontzertuak.

—Ezkonduten zoazala-edo zabaldu da. Noizko ori?

—Biarkoa pasau eta edonoiz.

—Onegaz amaitzen dogu, Jabi Ormazagaz izan dogun alkarrizketa atsegifia. Mutil ona dogu Jabi; Athletikoren margoen alde biotz osoaz doana. Apala ta leuna edonoren aurrean. Kementsua ta garbia. Lagunentzat maitagarria. Guztiz maite dau Euskal Erria; ta beragaitik jokatzen dau.

—Orainarte zoritxar asko izan dau jokoa. Aurrerantzean izan daizula, Jabi, zeure amesak —eta geureak be bai— betetako indar ta kemena. Ikusiko al dogu egun ori! Aurrera beti, beti aurrera!

ZABALE

## Balendin URIONA

euskal kirolariaren bizitza

Garitaonandia'tar Gotzonek idatzia

80 pesetan salgai

«ERRIEN AURRERAKUNTZA»

“Populorum Progressio”

Dokumentu ain garrantzitsua euskeraz irakurri gura dabenak, Bilbaoko liburutegi oneetan erosi leikee 10 pesetan:

Librería Balmes,  
José F. Lequerica, 5

Librería Bilbaína,  
Plaza de los Mártires, 2

Librería Estornés,  
Gran Vía, 31

Librería Izarra,  
Gregorio de la Revilla, 23

Librería Verdes-Achirica,  
Correo, 7



# Umeen lana arraintza ontzietan

Gabon aurreko egunak ziran. Bermeoko portuan, ontziak itxasora barik, txikot lotiakak lotuta. Baketan egoan dana. Alako baten, ontzi baten barrutik, zarata ikaragarria. Gizonak, ara abiatu ziran andanan. Mutiko bi, il zorian aurkitu zituen. Barrukoa zan bata. Amabi urtekoa. Bestea, aren kaleko laguna.

## HISTORIA TRISTE BAT

Benetan zoritxarra, mutiltxu bi orreena. Bengala argia ur azalean idoro eben, eta ontzi barrukoak lagunagaz bengala ori edegi nai eban; baiña eskuetan lertu egin jaken kohete indartsua.

Zoritxarra, bai, besterik ez. Eta zoritxarra benetan, Bermeoko arraintza ontzietan itxasora dabilzan mutil guztiena. **Berreunetik gora** dira, amalau urte ta gitxiagoko mutillak, Bermeon bakarrik. itxasontzietan enbarkatuta dabilzanak. Besoak makal. Bizarrik ez. Abotsa mee. Baiña begiak illun, berbeteta loi, arimea zimel, burua uts. Bizitzarako ikusbide guztiak itxita daukez. Idazten eta irakurten, bapez edo ozta ozta dakie. Gurasoen ardurapetik urrun, egunez eta gauez gizon elduen artean, euren parean lanean, euren erdian lotan.

## ZEGAITIK?

Legea, argia ta garbia da gauza onetan. Arean bere, ezin leiteke amabost urterik beerako mutillik itxasontzietan enbarkatu. Amalaukoak bai, baiña gabazko bearririk ez egitekotan eta **Delegación de Trabajo** dalakoaren baimenagaz. Kastiguak ipiñita dagoz, lege au errespetatzen ez daben ontzi jabeentzat.

Zegaitik dabilz, orduan, mutil koskor oneek lanean? Umeen esplotaziñoa egiten ete dogu Euskalerriko arraintzaleen artean?

Pekatu gogorra litzake au, baiña ez emengoak bakarrik.

«Mundo Cristiano» aldizkariak oraintsu azaldu dauanez, umeen esplotaziñoa egiten ete dogu Espainian, dardar eragitekoak dira. **Berreun milla ume, amalau urterik beerakoak dabilz lanean.** Madrillen, berrogetamar milla; eta beste orrenbeste Bartzelonan. Eta gaiñera, uri nagusi bi oneek dira, lanik bako beargin geien daukenak.

Baiña arraintza ontzietan, Bermeon bientzat, mutil oneeri, gizoneri beste ordaintzen jake. Ezin leiteke esan beiñik bein, gure ontzi jabeak umeen esplotaziñorik egiten dabenik. Eurak ez dauke zerikusirik mutilleri egiten jaken ordaintketan,

aintxiña aintxiñatik ontziko irabazi guztiak barruko danen artean ainbana partitzen dira-ta.

Alandaguztibe, gure portuetan zegaitik asten dira mutillak ain gaztetarik itxasora?

## BIRTUTE KALTEGARRIA

Erantzuna, sustraian, bat eta bakarra da: **Bearrizana.** Gurasoen bearrizana. Familia osoaren bearrizana. Irabaziak, urriak dira. Etxean, ago asko. Bizia, karu. Ume baten edukaziñoa, luzea ta neketsua da. Esku guztiak batu bear, etxea aurrera eroateko.

Bai. Danok ezagutzen doguzan egia garrazak dira. Baiña, ba dago zeresanik geiago be.

Bermeon, len esan dogun lez, mutillari gizonari aiña ordaintzen jake. Maria bardiña dauke biak, gizonak eta amairu-amalau urteko mutil txikiak, berau sartu barria izanarren bere.

Orduan, zegaitik euki mutilla etxean, eskolea naikoa daki-ta? Morroskoa da-ta? Zegaitik itxaron, legeak eskatzen dauan edaderarte, oraintxe bertan bardin bardin irabaziko dau-ta? Zetarako sakrifikatuko dira gurasoak, semeari eskola geiago emoteko? Itxasorako ez da ezer bear. Joan daitela ba ainbat ariñen itxasora, eta kitto. Gurasoentzako soluziño ederra; prolema ekonomiku guztiak konpontzeko bide erreza. Mutillak subertea badauko, aitak baiño diru geiago ekarriko dau etxera.

Ez dot esan gura, olan dala beti, ez. Baiña bai, gurasoen bearrizana pixu an-

diko errazoa dala, pixu larregikoa bearbada, mutillak itxasora edadea baiño lenago bialtzeko.

Alde batetik ondo dago —birtute bat da— mutillari gizonari beste ordaintzea, biok alegin bardiña egiten dabe-ta. Baiña beste aldetik, Samaniegoren Artzain Txirulariaren fabulan lez, kaltegarria izan leiteke birtutea.

## SOLUZIÑOAK

Umeak edade barik, formaziño barik, lanean daukazan erria, kondentuta dago. Ez dau eguno be aurrerapiderik egingo. Bearbada, eukiko dau progresu ekonomikua edo industrialia, baiña sekula bez progresu espirituala. Kultura arazoetan beti atzetik ibilliko da. Eta materialismu itsua izango da bere jabea.

Kulturea da soluziño bakarra. Lenengo, gurasoen kulturea. Euki daiela euren umeen etorkizunaren ardura bizia. Ez daitela ume orreen eskuetan erramurik ipiñi, ariketa idazten eta irakurten ikasi daien artean. Eta gero, gizarteak, gobernuak, bear dan moduan atondu bear ditú gauzak, gurasoak ez daitezkan umeak lanera bialtzeko bearrizanean egon. Alogerak, irabaziak, naikoak izan daitezala, familiako bearrizan guztiak betetako, gizonaren diñidadeak eskatzen dauan lez.

Il onen 5ean ospatu da mundu guztian Itxasgizonen Eguna. Gomuta zaitez gaur, irakurle, gure Itxasmutillakaz.

Artza

## Euskerazko mezak Bilbaon

Begoñako Karmelon	8,—
Sagrada Familian	9,—
Zurbaraneko Sakramentinoetan	10,—
Deustuko San Felizisimon	10,30
Deustuko San Pedron	11,—
Begoñazpiko Andra Marian	11,—
San Antonen	11,30

Iralabarriko Frantziskanoetan

ZAPATUETAN ETA JAIEGUN BEZPERETAN, ARRATSALDEKO 6,30

Meza onegaz, domeka ta jaiegunetako agindua betetan da

# Lotsorra naiz neskakaz berba egiteko

Oraingo idazlan onetan agertzen dan naiz urrengoetan agertuko dan **Urilia** idazlaria, ango edo emengo sikologuren bat izan leiteke. Bere eritxiak irakurleen gogokoak izango direlakoan, sail onetan argitaratuko doguz txitean pitean.

**Urilia agurgarria:**

Kartatxu bat bialtzen deusut, kontseju-ren bat emongo deustazulakoan. 31 urte daukodaz, eta langintza on baten bear egiten dot. Baiña zoritxarrez soltero bizi naiz, ezkontzeko gurari aundia eukiarren.

Orainarte ezin izan dot ezkongairik aurkitu, neskakaz berba egiteko guztiz lotsorra naiz-eta.

Ezagutzen dodaz neskaitilla onak neure inguruan. Gustetan jataz, eta neu be bai eureri bearbada. Pozik egiten dot dantzan eurakaz; baiña berba, ori beste gauza bat da: eguraldiaren gorabeerak eta olako tontokeria batzuk izan ezik, ez natxake besterik esaten atrebletan.

Aspaldion ziñera ta barrera joaten naiz sarritan, neure bakartasuna zelanbait azuteko. Etxean gurasoak eta arreba bat dodaz. Baiña ez naiz eurakaz ondo ondo konpontzen, edozek irrikitzen nau-ta: ain minbera biurtu naiz.

Orrek ez dau esan gura, «bakartia» naiz-anik, sindikatuko ta politika organizaziñoetako batzarretan parte artzen dot-eta. Baiña konturatu egin naiz, ez nabela iñolaz aintzat artzen; eta orrek gixdtxu egiten deust, oraindiño geiago, neugango konfiantzea.

Erantzuten badeustazu, mesedez bialdu eidazu karteia menbrete bako sobre baten, zure izena agertu ez dadin».

X. X.

**URLIAREN ERANTZUNA**

Neskakaz lotsorra izatea, jatorrizko jokera bat izan leiteke; eta orduan guztiz gatxa izaten da, lotsortasun ori kentzea. Baiña geienetan, jokera txar ori familiako bizitzan bertan sortzen da, etxeokazko artuemonak normalak ez direanean.

Orregaitik, aztertu egin bear zeunke lenengo ta bein, zegaitik ez joatzun ain ondo etxeokaz. Nik ezagutzen dodazan kasuak —eta asko dira— motibu berbera eukiten dabe ia beti.

Ezkontzeko sasoia aurrera doanean, gauzak ez jakez ondo joaten seme-alaberi, gurasoen etxean bizi badira, eurokaz ondo konponduarren bere.

Bearbada, gauza guztiz gatxa izango da zuretzako, oraingo bizimodu au aldatzea. Baiña, duda barik, bizimodu orretan dago zure gatxaren sustraia. Gurasoen etxean bizi zarean bitartean, zu ez zara guztiz libre, ez zara benetan zure eskuko; zelan edo alan gurasoen menpean bizi zara; eta menpetasun orretatik jatortzu, gero neskakaz lotsor izatea.

Irabazten dozun diru zati bat etxera daroazu; baiña alandaguztibere, etxeok errespontsabilidade osoa ez dago zure eskuan. Orregaitik, ez da arritzekoa, erriko batzarretan «aintzat artzen ez bazaitue» eta erantzunbearreko arazorik emoten ez badeutsue.

Ogetamar urterik gorako seme-alaba asko, gurasoen «umeak» dira oraindiño. Au ta bestea egin al izango dabe; baiña euren pausu guztien atzetik beti doa gurasoen etxearen gerizea —geriza gozoa, baiña beti gerizea. Olako seme-alabak, gaztelu baten antzeko dira: gaztelu sendoa,

zarratua, arrapatu eziña. Nor ausartuko da barrura sartzen? Nor animatuko da, olako neska-mutillakaz ezkontzen?

Ogetamaika urte dozuz, garrantzi andiko eskutiz bat bialdu deustazu, eskutiz guztiz personala; ta alandaguztibere, seiñale bako sobre baten erantzuteko eskatzen deustazu. Orra or, zure situaziñoaren ezaugarri bat.

Bearbada, ez dozu adorerik eukiko, gurasoen etxea itxi ta beste leku batera biziten joateko, naizta erabagi ori zure etorkizunerako guztiz egokia izan. Orra or beste seiñale bat, zure egokerea ezagutzeko.

Berba baten esateko: Zeure eskuan dago kasu onen soluziñoa; zeuk bakarrik ebatzi zeinke prolemea.

Dana dala, ondo letorkizu beste leku batera biziten joatea. Aurpegi barriak ikusi, neska-mutil barriakaz ibilli; alegiña egin, zeure burua eta bizitza osoa begi barriakaz ikusteko: aldakuntza orrek, erresultadu ona emongo deustu monbaitebe.

Ea pausu ori emoten animetan zarean! Suerte on bat opa deusut!

## Euskal liburuak

EZKONGAI .....	10 pta.
GAZTETXO (Atxagak idatzia) .....	15 »
EZKONTZA BIDEAN (Atxagak idatzia) .....	30 »
JAUNAREN DEIA (Liturgia aldizkaria) Urteko arpidetza ...	125 »
ADITZA (Sistema Nork-Nori-Nor) <b>Baztarrikak egiña</b> ...	50 »
ERRIEN AURRERAKUNTZA (Populorum progressio) ...	10 »
GAZTEDI BERRIA (Elustondok idatzia) .....	

**ESKATU:**

**Aita Beditarrak**  
**LAZKANO — Gipuzkoa**

# ABERASTU ZURE EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNAREN zenbaki onetan ager-  
tzen direan berba ta esakera batzuk.

AINBANA (BG), erderaz *a partes iguales*.  
ANDANAN (B), ariñeketan, ariñak arin.  
ANTZEMON GURA (B), imitatze guraria.  
ARENBATEN (B), gitxi gorabeera.  
ASAGO (B), urrun, urruti.  
ASTEKARI (LN), asteroko periodikua.  
ATZIZKI, erderaz *sufijo*.  
AUSARTU (GLN), ausardia euki, atrebidu.  
AUTU (B), alkarrizketea, konbertsaziñoa.  
AZIL (LN), zemendia, erderazko *noviembre*.  
BARRU (B), *a bordo* erderaz. *Barruko gizonak*: los  
hombres de a bordo. *Etorri da barrura patroia*: ya ha  
venido el patrón a bordo.

DEIGARRI, erderaz *llamativo*.

ENPARADU (B), geratzen dan beste guztia. *Bere  
ontasunak guri ta enparaduai egiñiko mesedeen orde*:  
en vez de los favores hechos por su bondad a nosotros  
y a los demás (*Añibarro*). *Dandarrez daroe enparadua  
euren a'ia edo leza zuloetara*: llevan el resto arrastrando  
a sus nidos o cuevas (*Peru Abarka*).

ERASO (BG), esetsi, atakatu. *Ernai bazaude, ezkutatu  
egingo da; eta zabartua bazaude, alde guzietatik erasoko  
dizu*: si estás presto, se esconderá; y si estás descuidado,  
te acometerá por todas partes (*7. B. Agirre*).

ERDIARO, erderaz *Edad Media*.

EROAN (B), oi izan, *soler* erderaz. *7ardun daroat  
mai, aulki ta ezgauza batzuk egiten*: suelo ocuparme en  
hacer mesas, sillas y otras menudencias (*Peru Abarka*).

ETSAI (GLN), arerioa, kontrarioa.

GARRANTZI, inportantzia.

GAZTELANIA (G), gaztelera, Gaztelerriko ber-  
betea.

GORPU (B), gorputz illa. *Kontu egizu, gorpu daku-  
tsula zeure burua*: haz cuenta que te ves convertido en  
cadáver (*Añibarro*).

IDORO (B), aurkitu. *Eriotzea artu baga, ezin idoro  
e'ban faungoikoak beste modu bat*: sin someterse a la  
muerte, no pudo Dios hallar otro modo (*Kapanaga*).

INDARGE (B), indar bakoa.

IRRIKITU (B), asarratu eragin.

IRUNTSI (B), erderaz *tragar, devorar*.

IRUNTZI (B), *reverso* erderaz. *Eratara ala iruntzi-  
tara ipiñiko dot?*: ¿voy a poner al derecho o al revés?

ITAURREKO (B), idi aurreko, idien aurretik doana.  
*Ba dakie idiak buztartuten, itzaintzea egiten, itaurreko  
egiten, itaurreko dabilzala noiznai*: saben (las mujeres)  
uncir los bueyes, guiar el ganado, andando como quiera  
delante de él (*Peru Abarka*).

IZTEGI, dizionarioa, bokabularioa.

JAREGIN (B), askatu, libre itxi.

JASAN (LN), erderaz *soportar, aguantar*.

LAUSOTU (BGN), begiak laifotu.

MARIA (B), arraintzale baktxaren izabazia. Erderaz  
*mareaje*.

MIAZKATU (BG), *lamer, chupar* erderaz. *Ezkota-  
suna miazketan dabe musturrean dauken tronpa bategaz*:  
chupan el jugo con una trompa que tienen en el hocico  
(*Dialogues basques, Londres, 1857*).

MUTIL (B), arraintza ontzietako mutikoa. *Cho er-  
deraz. Mutil ori geure barrukoa da*: ese cho es tripulante  
de nuestro barco.

ORAIN BEÑEON (B), oraingoan.

TXIRRIN (B), errobedea, burpilla.

ZALAPART (GLN), zaraparrea, desordenua. *Alako  
zalapartik! Nok an berbea entzun eragin?*: ¡qué tumulto  
aquél! ¿Quién podía allí hacerse oír?

# BEISTEGI & C.

Txirrindu onak

Neurri guztitakoak

Edozein adifiekoeztat

Etorri ikustera

Plaza Santiago, 4 — Tel. 21 15 12

BILBAO (5)

# JAKIN

JAKIN aldizkariaren xedea  
euskerari laguntzea da,  
euskerazko kultura egiten saiatzea.

Urteko sei aleen arpide saria: 100 pta.  
Alea: 25 pta.

Eskatu:

JAKIN — Arantzazu — OÑATE — Gipuzkoa



## HEMPEL'ek

eskintzen deutsu, eskura ipiñiaz,  
itxasontzientzat margorik onena  
HEMPEL izena

Ludi osoan ezaguna.

BILBO-ko ordezkaria: JOSE LUIS ALDEKOA

Avda. del Ejército, 31, 6.º A

DEUSTO-BILBAO - Tel. 233783 - 219143

Etxe Nagusia Barzelonan:

Entenza, 85-87 - BARCELONA-15

Tel. 223 24 27 — 223 39 23 — 223 4687

Telegramak: HEMPATURI

## EZAGUTU ZURE ERRIA

Edonok daukoz bere barruan, iñori agertu gura ez leuskiozan zerak. Onelaxe, etxean be guztiok doguz, erakusten ez diran bazter batzuk. Gizakiak eta etxeak dabena, erriak be bai.

Edozein erri daukoz agertu gura ez leukezan aldeak, erakus-teak nabarmendu egiten daualakoan. Bizkaia be, onetan ez da bes-terik ezkoa.

Apur bat lotsaz gorrituta, izango al dogu ausardia, geure burua ezagutu ta onartzeko. «Ezagutu zure erria» egia izateko, Bizkaia dan lakoa agertu bear dogu-ta, gura nai gura ez, Bizkai erdalduna be azaldu bear.

Bizkai erdalduna? Bai. Zati on bat, Bizkaiak erdaldun utsa-edo dau. Gizaldiak dira, gure mugetatik erderearta sartu ta Euskalerriaz jabetzen asi zala. Alan gertatu zan orduan. Eta zauri gordin ori, gitxi asko, aberri guztian agiri bada be, iñon ez da azalago Bizkaiko sartaldean baiño.

Izadiak emonda, guk baiño lurralde zoriobekoa artu dabena euskaldunak askotan diñoskue, Bizkaiak euskotar erdaldun asko dauzala, agur esaten baiño ez dakienak; eta euskeraz ez dakiana, euskalduna ez dala. Olakoak ez beie aztu, eurak lau aldetatik euskal erri inguratuta bizi diran bitartean, bizkaitarrok, erdal mugan, erdereagaz burrukan diardugula gizaldietan.

Zapaltzaille ta ondatzaille doguz Sanandere ta Burgos aldeak. Gaztelerrri berbera dogu aintxiñate zaarretetik auzo ta bideko etsai. Alkar ikusi-guraz ori, Aita Mariana erdalzalea besteko zaarra ba da beintzat.

Arrezkero gu, gero ta indargeago. «Errien Aurrerakuntzak» diñonez, «aberatsak gero ta aberatsago diran bitartean, ezeukiak txirroago». Gu be, erritasunean ezago. Euskotartasunean geiago? Ez dakit.

Erria iñoizkorik itzartuen dagoala? Bai, ta zer? Itzartze berorek ez al gaitu zoritxarrekoago egiten geure zorionean?

Biotz illun diardudala? Ez da arritzeko: gorpua bat oraintxe ikusi besterik ez dot egin.

Lengo zenbakian, Ondarrutik nenbillen. Gaurkoan, Balmasedara, Bizkai erdalduneko uri nagusira joan naz. Onak ez dau eusko antzik iñondik, ezta izenik be. Ba jagok aldea, lengotik ona. Ondarru ta Balmaseda: biok erri andi, biok Bizkiako, ta iñondik be ez antzik. Onenak egin dau.

«Zetarako euskereak» galdezka letorkidanari, gaur ezin itxi auxe erantzun barik: «Biar edo etzi, Bizkai guztia Balmaseda lakoa izan ez daiten. Ori bardin balitzatu, zugaz ez nabil».

### ERRI ANDIKIA

Balmaseda, erri andikia dogu. Aintxiñatik da Enkartzaiñoetako erriburu. Iñoizkotan, lantokietan be izan zan Bilbo bera baiño be nagusiago. Gero Bilbok, geiago egin eutsen. Erdalerrriak, sarri erabili eban iruntsi bearrean. Erri au izan zan, aldi baten, Gaztelerrirako geunkan ate nagusia. Saltzeko geunkazanak, emendik joiazan; errogaiak emendik euskalerriratu. Ate guztiak arriskutsuak diranez, emendiek sartu jakun izkuntza lapurra, igarri be egin barik beranduarde.

Edonongo edestilariak onartu dabe Balmasedaren zaartasuna. Erromatarak asita arrezkero, atzerritarak erabili dabe, txakurrak azur galdua darabilen antzera. Beti jauntxokeriaren menpeko. Erbesteko jauntxoak menperatu; bertokoak odolostu ta ondatu. Erdiaroko anai arteko burruketan guztiz makaldu, ta gero ezer be ez.

Itxura baten, ederra da Balmaseda. Eleiza ederra, ibai zabala; zubi ikusgarriak eta jauregi zaarrak. Edonondik agiri dau bere aitor-tasuna.

### GAUR ZER DAN

Balmasedatarak, 7.853 inguru dira gaur. Orreen artean euskeraz dakienak, bertan jaiokoak gitxi dira, beste euskal lurralde batetik etorriak geienak. Olantxe dagoz 60 euskaldun. Umerik esan leiteke, bat be ez dagoala euskaldunik. Onexegaitik esan deusut, gorpua bat ikusi dodala.

Euskaldunik ezean, ba ete da euskal odolik? Tamalez asko ez: eunetik 50 be ez.

Erdaldundute au onaiño elduteko, aintxin-aintxiñako gatxa izan bear. Noiz asi zan, ziur jakiterik ez da; iru-lau gizaldi bai, gitxienez.

# BALMASEDA



Balmasedako zubi zaarra

### ZETATIK BIZI ZIRAN, ETA DIRAN

Erdiaroan, ospetsuak ziran emengo burdiñolak. 1.656 gn. urtean, 50 baiño geiago ziran bertoko olak. Emen izango zan «tiriki tauki-tauki mailuaren otsa» aldi baten. Ezpatagintzan, trebeak ziran. Izan be, auxe zan orduko iskillurik gogorrena; eta asko bear, auzokoei aurea emoteko. Gaur ez da ezpatarik, nok erabilirik be ez. Beste iskilluak artuta be, geure aurka jatorkuz. Ez gara iñor ilteko, antza.

Ezpatagintzea itxi, ta aren lekuan zurginak eta arotzak dira gaur ugari. Ezpatetarako adorerik edonok ez dau; ogerako bai ostera. Laroetamar aroztegi inguru dira lanean, jantoki ta logelatako tresnagintzan. Bakotxean, langille mordotxo bat baiño ez. Erbestera doaz asko, Bilbo aldera. Lantokiok naiko estu dabilz. Entzun dogunez, egindako lan asko, saldu eziñik, pillatuta dauke.

Balmaseda au eusko gogo batez aztertzeraz baziñoiaz, urri be urri da an, zuk eta nik billatzen doguna. Balmasedako arlanduetan, «erri bat izan zan» irarri daiteke gaur.

Ez al da bizi ezer? Bai. Zeozer. Gazte bat edo beste, giltzapean dira: euskotarren odola, abertzaleen azia. Dantzari taldetxo bat be ba da. Euskotartasuna, oraindiño bizi ete dan edo. Euskalduntasunik ezean, nik neuk onartzen dot euskotartasuna.

Norbaiten esan dau: «Euskaldunak bear doguz, euskotarrak baiño geiago». Esaera ori, izan leiteke nik ondo ez ulertzea. Nik ulertu dodanez, ez dot guztiz onartzen.

Egia da, ba dirala euskotar ustel asko. Esatetik izatera... Baiña au be ez da guzurra: ez dala ustel gitxiago euskaldunen artean: ikasiak eta ikasi bakoak, eleiz eta erri agintari.

Euskotar guztiak euskaldun, eta euskaldun guztiak euskotar bear geunkez. Geiago: ez batekorik eta ez bestekorik. Euskaldun eta euskotar, itzez eta egitez, guztiok.

Balmaseda ta aregaz Enkartzaiño alde osoa, iñoiz euskaldunduteko badira, leenago euskotartu egin bearoko doguz. Euskaldun geiago bear doguz, bai; baiña euskotarrak bat be gitxitu barik. Euskotarrak egin bearoko dira leenago, gero euskaldunak egiteko; beste biderik ez dot ikusten Balmasedarako. Batzuk, euskaldun izatetik eldu giñan euskotar izatera. Baiña kumatik euskaldun ez diranak, euskotar izan bearoko dabe leenago. Euskotarra ez bada, nekerik gura ez dauan euskalduna izango da.

Balmasedakoei, gaur ez diñotset ezertxo be; ulertu be, gitxi egin-go deuste-ta.

Euskal indarrei bai, auxe: Bizkaiko bazter au, ez bertan bera itxi. Erein eta zabaldu eusko azia. Laster da zabaltzeko bertan ikastola andi bat; 600 mutil an eziko dira. Geureak doguz, eta ezin daiegeuz itxi. Geuk irakatsi bear deutsegu, amaorderik onenak ama itzarrenak beste ez dauala balio.

Balmaseda zaarra,  
itzartu!  
ta biziko zara.

SALATARI